


LINO AKESOLO OLIBARES
(1911 -1991

I. Jakintsu baten heriotzea

1991.eko irailaren 17an, astearte goizean, Aita Linoren heriotzearen berriak goibel jarri gintuen; jakintsu baten heriotzea zen, oso gutxi gelditzen diren horietariko batena... Hark bukatu zuen bere bidea, gu eta *Karmel* aldizkaria, laguntzailerik hoberena galdurik, umezurtz utzirik; jakintsuak eman ohi zuen ziurtasunik gabe; euskararen eta mundu zabaleko jakintzaren euskarrik gabe.

Egun berean ikus-entzuteko bideek toki zabala egin zioten: irrati eta ETBk argi adierazi zuten. Eta ondorengo egunetan egunkari eta aldizkariak ere gauza bera egin zuten: *El Correo Espanol* (1991-IX-18, 46. orr.), *El Diario Vasco* (1991-LX-18, 67. orr.; 1991 -IX-19, 89- orr.: Jesus Gastanagaren idazlana), *El Mundo* (1991-IX-18, 39- orr., X.G.A.-ren idazlana), *Egin* (1991-IX-18, 36. orr., A. Okarizen idazlana), *Deia* (1991-IX-18, hiru idazlan: luzeena izenpetu gabea eta gainerako biak Joseba Etxarriren *Irrinoa ezpainetan* eta A. Zubikarairen *Lino Akesolo Aita*), *Diario de Navarra* (1991-IX-21, 46. orr., Jesus Gaztanagaren idazlana), *Argia* (1991-IX-29, 48-49. orr., Ritxi Lizartzak egindako idazlana eta Ibon Sarasola hizkuntzalariarekin Lino Akesolori buruz egindako solasaldia; ale berean, 41. orrialdean, kultura-kronikaren barruan Josu Landak egindako




aipamentxoa), *Zer* (155- zenb., 1991-IX: 1. orr.: *Lino Aitari*, 7. orr.: Paulin Solozabalen *Akesolo'tar Lino* (bertsoak), Inaki Zubiriren *Erraldoi bateri* (bertsoak); 15. orr.: *Aita Linori omenaldia*; 16. orr.: *Beste omenaldi batzutan*); *Bilbao* (43. zenb., 111. orr. 1991-X, idazlan labur bat dator, baina haren heriotzea aipatu gabe...), *Euskerazaintza* (1991,17. zenb.: Jesus GAZTANAGA, *Akesolo'tar Lino, goian bedi*; 23-26: AITA ONAINDIA, *Aita Lino Akesolo, bertso-zale*), etab.

Eta bereziki *Egunkaria* aipatu behar, hain oparu bait zekarren Linoren berri (1991-IX-18, 1.22-33- orr., hiru edo lau idazlan datoz Joxan Oiz, L.B., J.L.Z. eta abarrek sinatuak; hauetan Aita Linoren bizitza eta lana eta euskal kulturaren ari diren zenbait peitsonaren eritziak jasotzen dira). Idazlan guztiotan bi lan azpimarratzen dira: Euskararen Lekukoen Hiztegi handia eta 1989.ean bi liburukitan eta 1602 orrialde dituztela egin zen haren idazlan guztien argitarapena.

Beste aldetik irailaren 18an, Begonako Karmelo elizan haren hileta-meza egin zenean agertu zion euskaldungoak Aita Linori

zor zion mirespen eta eskerrona: eliza gainezka, 80 apaiz inguru mezaemaile, Karmeldarren Probintziala, Aita Arostegi, bum zela, Bilbo eta Donostiako elizbarrutietako ordezkariak, Iratzeder, Bellokeko abate ohia, Elizaren eta kulturaren arloko pertsonarik gorenetarikoak bertan zirela egin zitzaion hileta-omena. Guztiak, dohainik lan eta lan bere bizitza agortu arte iraun zuen haren ondora hurbildu eta otoitz egin beharra izan zutela zirudien, harenganako zorra nolabait ordaintzeko edo.



Lino Akesolo bere gurasoekin

Karmel aldizkari honetan azken urteotan lau idazlan (him nireak eta bat L. Arostegirena) argitaratu izan dira, Dimako euskaltzale handiari eskainitako omenaldiak zirela eta (*Karmel* 1987-3, 73-82; 1989-1, 26-45; 1989-2, 5-19; 1989-3, 15-25; eta bereziki A. Linoren idazlanen hitzaurrea (*Idazlan guztiak*, XXI-LXI. orr.); J.A. Etxezarragaren idazlana *Idatz eta Mintz* aldizkarian, 18/19; *Zer* aldizkariako idazlanak (1989) eta *Euskerazaintza* aldizkariaren 7. eta 8. aleak (1989)-

Beraz, idazlan honetan ezinbestekoa da ideia batzu, laburbilduz, berriro agertzea; hala ere gauza berriak gehitzen ahaleginduko naiz... guztia, *Karmel* aldizkariaren izaerak eskatzen duenez, albait laburren.

II. Nor izan zen Lino Akesolo

1. Haren bizitzaren zertzelada batzu

Lino Dimako Oba auzoan jaio zen 1911-eko apirilaren 7an; haren gurasoak Antonio Akesolo eta Praxedes Olibares. 10 urte arte eskolako hasi-raasiak burutu ondoren, 1921.eko azaroaren 23an Larrako Karmeldarren ikastetxean sartu zen giza ikasketak egitera. 1926.eko abuztuaren 10ean karmeldar jantzia hartu zuen, hurrengo urtean, abuztuaren 14ean, Familia Santuaren Lino izenez profesia egin zuelarik.

Ondorengo ikasturtea, 1927-1928, giza ikasketako azkenengoa, Markinan egin zuen. Markinako karmeldarretan hasi zen euskara lantzen eta han eman zion euskaraz idazteari ere. Karmeldar gazteek euskararako gogo edo garra somatu zuten toki gertatu zen Markina... Gero beste hiru urte egin zituen Gasteizen filosofia ikasten (1928-1931) eta lau Begonako Karmelon teologiako ikasketak egiten (1931-1935). Karmelon bertan apaiz egin zen 1934.eko uztailaren 8an. 1935ean Zornotzako ikastetxeko irakasle izendatu zuten; eta 1936.ean *Karmengo Argia* aldizkariaren zuzendari.

Gerra zibila sortu zenean soldadutzara deitu zioten eta gudarien ondora joan zen haien kaperau... Atxiloturik, gartzelan sartu eta 1937.eko uztailaren 30eko gerra-azitegian, fiskalak 12 urteko gartzela eskatu arren, 16 urtekoa eman zioten. *Karmengo Argia* aldizkariaren zuzendari izatea egozten zioten beste gauza batzuren artean: «Ain zuzen auzitegira eroan eben militarrek eta *Karmen'go Argia* orren zuzendari izan zala-ta, aldizkariaren erru guztiak bota eutsoezan lepora. Pekaturik



L Akesolo bere lobaren ezkontzan

andiana, beste guztiak bat egiten zituen a, aldizkariaren izena bera: 'Yaven, -esaten eban gogor salatzailleak- Karmengo Arjia (olan esaten eban "berak), hasta el titulo es separatista'. Orra berak autortu eta salatu bere buruko utsa eta barruko gorrotoa: euskerea bera zan euren arerioa, arerio ondatu bearrekoa. Nik euren buruetan argi apur bat egin nai izan nebanean, maipurukoak: 'Calle y sientese'.

Eta fiskalak amabi urteko espetxea eskatzen zituan arren, auzitegiak amasei urtekoa emon eustan. Gorrotagarria zan Karmengo Ama, gorrotagarria Avilako Teresa andia eta Joan Kurutzekoa, gorrotagarriak gure Indiako eta Ameriketako mixiolariak eta euren lanak, gorrotagarriak euskeraz egiten zan edozein lan» (*Idazlan guztiak*, 35- orr.).

Auzitegian emandako epaia leku ezberdinetan bete zuen: gartzela bihurturik zen Begonako Karmelon, Langrarizen, Venta de Banos-en eta Karmonan, 1940.ean askatua izanik. Hala ere lehen urteetan ez zuen euskal komentueta etortzerik izan.

Kantabriako Hoz de Aneroko komentuan bizi zen, Karmeldarren artean basamortu izenez ezagutzen den horretan (1940-1941); gero, Irunera joan zen (1941-1943); bi hilabete Zornotzan egon zen, eta beste bi hilabete t'erdi Korellan. Gero Kantabriako El Soto-ra bidali zuten (1944-1948).

Teologiako irakasle izendua izanik, Gasteizera joan zen 1948.ean ikasturtearen amaiera arte, eta hemendik Begonako Karmelora ikasturte berrirako: Begonan biziko da hil arte irakasle eta liburuzain izanik, baina tartean beste hiruna urte emango ditu Donostian eta Markinan, bi komunitateetako nagusi izanik: Donostian (1969-1972) eta Markinan (1972-1975)...


Hain zuzen ere 1975.ean itzuli zen Begonako Karmelora, *Hiztegiaren* lan handiari ekitera. Eta hemen iraun zuen, 1991.eko irailaren 17an hil zen arte.

2. Izaera

Egia esan, ezin dugu zertzelada batzu baizik eman, gainbegirada arinez, anaiarteko bizitzan, lan ezberdinetan adiskide eta lankide gisa agertzen zuen izaera taiutuz...

Gizon eta laguntzaile aparte zela esan dezakegu batez ere; anaiarteko bizitzan inori kalterik egin ezinekoa, beti laguntzeko prest zegoena eta bere egitekoak zintzo betetzen zituena. Bai Karmeloko fraideek, bai haur nahiz irakasleek harengana jotzen zuten jakintza gaietan eta bereziki euskal gaietan, nahi zutena harengandik lortuko zuten uste osoz...

Gizon baketsu eta isila zen. Ez zuen burruka eta zalapartarik nahi; esaterako, euskara eta Euskaltzaindiaren inguruan sortu ziren eztabaida haietatik albora gelditu nahi zuen. Lana, ikerketa, gaiak jakin eta egitea zen bere arloa... Hala ere lagun artean eta etxean interesgarri eta kritikoa zen, haserratzen zenean barre eragiten zuena... Ez zen batere handigurakoa eta zaratatsua, ez eta gaur hain modan den itxurazale eta kanpoeder ere. Jendaurrean omenaldiak eskerronez hartu bazituen ere, ez zien



Baserria

horrelako gauzei garrantzirik ematen; esaterako, eta horren lekuko neu naiz, 1989-eko apirilaren 7an Bizkaiko Diputazioak omenaldia egingo zion egun berean, ekintza hori baino ordubete lehenago, bere gauzetan buru eta bihotz ari zela (ikerlan eta antzekoetan), ez zen prestatu omenaldira joateko eta azken unean habitu berriaren eskapulario eta txanoaren bila aritu ginen, eta txanoa aurkitu ez genuenez gero, batere gabe joan zen Diputazioara... egun hartako argazkietan ikus daitekeenez...

Haren izaeraren ezaugarrietariko batzu, apaltasuna eta egizaletasuna ziren. Horretan Avilako Teresaren esaera hura egia bilakatzen zen haren nortasunean: apaltasuna egiaz aritzea da. L. Arostegiri utziko diot hitza: «Egizale eta langille izatea bere ikerlanetan egiztatzen da. Onetarako, ganera, oroimen argi tinkoaren jabe dogu (lanik asko aparteko lagungarri barik, liburutegiari, bere oarrai eta oroimenari esker burutu aal izan ditu). Epaimen zorrotza, funtsgabeko baieztapenik ez egin ez onartzeko. Iraunkorra lanean. Eta lanean zearo bildu eta bestez aaztuteko gaitasun bereziaz. Baina doai guzti oneek ez dira

naiko bere lana argitzeko. Bada or beste zer bat, esandako guztien bizi-indarra: 'Beti izan naz ni jakingurea'. Berezko jakingurea. Ikusi eta ikasi, jakitearren; jakitearen atseginagaitik. Edozein komentu eta lekutara doala, beingoan asiko jatzu bertako liburuak eta paperak aztertzen. Bere joan-etorriak bide batez liburutegiren bati ikustaldia egiteko asmatzen ditu. Akesolo, beste eginkizunik ez badau, liburu artean aurkituko dozu. Bere begiak edo irakurgaien baten josita, edo (autuan edo ixillik zerbaiten zain) apur bat gorantz eta urrinerantz zuzenduta eukiteko jokera dau» *Qdazlan guztiak*, XXVII. orr.).

Beste ezaugarrietariko batzu askatasuna eta ausardia dira... Bere eritzia eman eta egiaren aide egiteko askatasuna, pertsona, idazle eta etor daitezkeen nahigabeak kontutan izan'gabe. Hau kritikazko idazlan ugaritan nabari da. Berak egia eta zuzentasuna ditu beti kontutan.

Askatasun eta ausardia hau militarren aurrean ere agertuko du. Bi gertakari aipatuko ditut. Lehen gerra-auzitegian gertatutakoaz haren hitzak agertu ditut; orain, berriz, Eusebio Erkiaga idazleak hain argi A. Leonen tolegabetasun eta bakuntasuna batetik eta A. Linoren zuhertasun eta ausardia bestetik agertzen dituzten hitzak aipatuko ditut hitzez hitz: «Gerrate ostean, galtzaileak ez ei dau ezetariko eskubiderik. Harako egunean, beste batzuekin, epaimahaikoen aurrera daroe. Aita Leon alboan, laguna lagun zakidaz. Botoidun eta ezpatadun epaileek egia osoa jakin gura. Aita Leoni zutundu daitela dinotsoe. Erantzuna 'bai' ala 'ez', besterik ezin.

-Zu zeu, nazionalista vasco izan al zara?

Aita Leon gizajo haundiak, estu ta larri, erantzun motxa:

-Bai.

-Jesarri zaitez.

Hurrengo, Aita Lino jesarlekutik jagierazo dabe. Itaune berori egin deutsoe. Erantzunak, motxa behar dau izan. Baina fraile horrek, eskuak eskapulariopean alkargaturik, bare bare dino:

-Gure Ordeneak ez deusku...

-Ixildu zaitez. Erantzuna 'ba' ala 'ez'. Itaune berbera, eta auzipetuak jardetsi:

-Ez deusku gure Ordeneak...

-Ixiltzeko! Bai ala ez, soilik. Zu zeu nazionalista...

-Barruko sentipenik agertzen, ez deusku...

-Zagoz ixilik! Jesarri zaitez!» {*Karmel* 1989-2, 7-8).

Eta 1973.eko abuztuan, A. Lino bertako nagusi zela, Markinako komentua goardazibilek miatu eta liburu, paper, multikopiagailu eta abar eraman zituztenean, A. Linok protesta egin zuen miaketagatik, egiteko eragatik eta eraman zituzten aldizkari eta Hburuengatik, hauek edozein liburudendatan salgai zeudela adieraziz eta liburu subertsiboak ziren ala ez erabakitzea epaileari zegokiola esanez. Orduan txapelokerrak barre egin zuen destainaz, esanez: «Eso no lo dice ni un niño de 6 años»; eta A. Linok ihardetsi: «No lo dice un niño de 6 años, pero un hombre de 60 sí» (Ik. Markinako Karmeldarren Artxiboan, F-I-1).

Karmel aldizkariaren ale honetako beste idazlan batetan, A. Linoren izaera, batez ere haren gizatasuna agertzen da, pasadizu politetan... Hura aipatzen dut, haren gizatasunaren barnealdea umore tantoz adierazten bait da. Han agertuko da haren xalotasun eta apaltasuna, edonori laguntzeko eta nagusiek agintzen zioten edozer batetzeko jarrera leiala...

3- Haren gogo bizia: jakinmina eta egia

Guztiek dakite liburueta zuen joeraren berri. Euskadiko libumdenda eta liburutegi askotan oso ezaguna zen. Erosten zituen liburuak nahiz dohainik ematen zizkietenak, milaka izanik ere, guztiak osorik nahiz zatika irakurtzen zituela esan genezake. Horren lekukotasuna Karmeloko liburutegiko hainbeste libuRitan gelditu da, irakurri ahala egindako ohar eta markatxoak

agertzen bait dira haietan... Eta hau, ez euskal liburuetan soilik, baita besteiaikoetan eta edozein gai darabilenetan ere. Irakurri eta irakurri egiten zuen jakinminez. Benin- edo behin norbaitek ikusi izan zuen libururen bat irakurtzen, esku bat azaldu oinarri garbitzen ari zen bitartean; hain irakurle handia zen! Inork hain liburu bitxia zergatik irakurtzen zuen galdetuz gero, beste galdera batez ihardetsi ohi zion: «zertarako erosi da, ba, irakurtzeko ez bada?» Haren ikaskideek horixe azpimarratzen dute: irakurri eta irakurri egiten zuela, gauzak, ideia berriak ezagutu nahiez, irakurri eta irakurri jakinminez...; guztia irakurtzen zuen, baita ikasleek klaustroetan botatzen zituzten paper zatitxoak ere.

Azpimarratzekoa da *egiaren aide* eta arinkieriaz emandako eritzi kaltegarrien aurka egiteko zuen joera. R.M. Azkueren ohorea edo izen ona babestu nahirik, hainbat idazlan egin zituen; 1964.ean *Zeruko Argia* aldizkariak argitaratu nahi izan ez zuen idazlan bat idatzi zuen (*Ez daiguzan gauzak nastu - A. Villasanteri*); idazlan bat baino gehiago idatzi zituen M. Lekuonaren aide ere (ik. *Idazlan guztiak*, 684-707); had berekoak dira berriki egindako batzu ere, adibidez, *Inazio deuna eta euskal kultura* (Karmel 1990-3/4, 333-350); *Diasporako euskal idazleak*, (in: *Idazlan guztiak*, 721-725 etab.)...

Eztabaida eta auzi-mauzietan sartzen denean, ustez behintzat, egiaren aide egitearren sartzen da; esaterako, Euskaltzaindiaren biltzarre batzu direla eta dardar eragiteko idazkiak argitaratu zituen, baina beti egia aurkitu nahirik (ik. *Euskera batuaren billa*, in: *Idazlan guztiak*, 145-165; *Zuk zer dezu, Arantzazu?*, 172-173; *Luis Mitxelena jaunari Errenderiara*, 188-191; *Euskaltzaleen batzar gogoangarria*, 10-16; *Osotu bageak*, 168-171, etab.). Beste batzutan idazlan laburretan egingo du egiaren aide eta arinkieriaz idatzitako idazlanen aurka, umore-tanto batzu ere isuriz (ik.: *Norentzat da arrikada on?*, 850-851; *Kontu adar-jotzailleekin eta borbonkeriekin*, 179-181; *Txotxolokeriak salatu*

eta txotxolokeriak egin, 182-184; Noren astakeriak, 'Amatino? ,177-178, etab.). Beste batzutan euskal literaturako balioak aurkituz joango da, edo eta ahazturik nahiz bazterturik daudenak berraurkituz.

Kritika literario eta linguistikari buruzko oraingo jakintza zer mailatakoa den galdetzerakoan, haserre antzera jartzen zitzaidan, jakintsu-usteko ezjakin harroputz asko direlako: «Gure artean ez-jakin asko izan da, bere burua dana dakialakotzat euki dauana. Ez-jakinik asko, dinot, baina bekoki gogordunak, edozertaz edo edozeintzaz bere eritxia emoteko azkenengo berbea emoteko. Esaera zarra da: apezak azken-itza bere. Esaera ori gaur apez edo abade ez tiran geiagori jagokie. Eta olango barritsu batzuk ixillik izten ez da gatxegi. Ori bada kritika egitea, nik ori be egin dot. Baina ez ingudea bein eta barriro jo barik, euren burua, dana dakialakotzat daukena, lengo lepotik eukiko daben arren. Orain kritiko obeak be agertu dira, Unibertsitatean ikasitako eskemei lotuegi badabiz be. Baten batek gogor daragoio, bere eginalean, gure literatura kaskarregitzat ipinten erdaldunentzat» (*Karmel* 1987-3, 77-78)...

Nori berea aitortu ohi zion; kritika literarioa nahiz historikoa egitean, balio eta aide onak ederki goraiatzekien; berak idatzitakoa osatu eta zuzendu beharra ere aitortzen zuen geroago idatzitako idazlanetan (ik. *Idazlan guztiak*, 900-901: *Bakoitzari, eta Iraizoz Aitari, berea*: 902-903: *Bakoitzari berea*; 63-65: *Aclarando: la h aspirada en Oihenart*; etab.).

Eta hamaikatxo bider erabili ohi zuen bere luma, zenduak edo hilak zirelako hitz egiteko gai ez zirenen orde... egiaren aide eta ezjakintasunagatik mesprezatutakoen izen ona gorde nahirik!...

4. Jakintsu eta Ikertzaile

Hartaz zabal zebilen ideia eta hil zenean komunikabide guztiek azpimarratu zutena onako hau zen: azken hamarkada hauetan

izan denik eta irakurlerik handiena izango zela, behar bada, eta gizon jakintsua zela...

1948.ean Begonako Karmeloko irakasle izendatu zutenean, Elizaren historia, Patrologia eta Liturgia irakatsi zituen; hala ere haren jakintza beste arlo askotaraino zabaltzen zen, historia, munduko literatura, musika eta abar hartzeraino; baina bere-bereak zituan arloak euskal kulturazkoak ziren, euskal historia, literatura, linguistika, dialektologia etab. Behar bada horregatik esango zuen Joan Mari Lekuonak: «XX. mendeko gizonik handienetakoa izan da Aita Lino, jakinduria handikoa eta zehatza-*(Egunkaria, 243. zenb., 23. orr.: 1991-IX-18)*.

Egunkarian bertan eta orrialde berean Patxi Altunaren eritzia ere jasotzen da: «Denetik idazten zuen, denetik zekien. Mitxelena zenak esan ohi zuen ez zuela bizian ezagutu euskal kulturaren gaitan Aita Lino Akesolok adina zekienik».

Adierazpen honek oraindik gehiago azpimarratzen du L. Mitxelenak zion begirunea, are gehiago harekiko somatzen zuen konplexu antzekoa; behin, Mitxelena hitzaldi bati ekitera zihoanean, A. Linori, mesedez, ondorengo elkarrizketan parterik ez hartzeko esan omen zion; ezer esatekorik izanez gero bakarrean berari soilik esateko (kasu hau A. Lino berak konfidantzaz neuri esana da).

Bilaketa eta ikerketan nola jokatzten zuen eta nola saiatzen zen adierazten luze ihardun genezake, baina kasu banaka batzu baizik ez ditut aipatuko.

«Boletín de la Real Sociedad Vascongada de los Amigos del País» aldizkarian Fr. Bartolome Santa Teresari buruz hiru idazlan idatzi zituen: lehenengoan (24 (1968) 357-476) hura, pertsona gisa eta haren 'Plauto Bascongado'¹ aztertzen ditu: Fr. Bartolomek Lazkanon profesa egin zuelako berria zalantzan jartzen du: Iruhean eta Tuteran ikasi zuela ere askoz ere hobeki aztertu beharrekoa dela dio, eta ondoren berak lortutako haren bizitzako argibideak ematen ditu; 1835.eko abenduan il zelakoa ere ez du

ziurtzat jotzen... Bi urte geroago, bigarren idazlanean (24 (1970) 321-327), haren bizitzari buruzko argibide gehiago dakartza; sermolari zela ofizioz eta idazle-agiriaren jabe... eta haren eriotzari buruz, oker ulerturik, Fr. Bartolome 1836.eko urtarrilean hil zela diosku, urte horretako urtarrileko hilen zerrenda batzutan ageri bait zen (Burgosko Archivo Siveriano delako 195 esk.). Baina huts egin zuen, zerrenda horietan ez bait zen heriotzako datarik ematen, zerrenda horretakoen heriotzaren berri noiz izan zuten baizik. Gauzak hobeki ikertzen jarraitu zuen, eta 14 urte geroago, hirugarren idazlanean (4(1984) 425-429), beste datu berri batzuren artean, haren heriotzako data zehatza ematen digu; eta lehen, 1968.eko idazlanean zalantza jarri zuena, hots, A. Zabalak emandako data, zuzena zela ziurtatu zuen; beraz, 1835.eko abenduan hil zela, areago oraindik, abenduaren 11n hil zela ziurtat jo zuen... Agiri ziurren bila aritzen zen beti... eta ekin eta ekin aurkitu egiten zituen. Profesa egin zuen tokia ziurtasun osoz ematen digu: Korellan egin zuen.

Beste kasu bat bere bizitzako azken-aurreko idazlanean • agertzen diguna da, hil baino hamar bat egun lehenago idatzia (Karmel, 1991-3- 5-



Euskal Liturgi hatzarrekoak

11): *Etimologi billa: Zeanuriko Undurraga eta Olibares*. Barman zaztadaka egon ohi den arantza bezala zen harentzat Olivares edo Olibares bere amaren deitura; itxuraz ulertezina Diman... Lehen-lehenik zalantza sortu zitzaion, gero bide bila aritu eta urratsak ematen hasi zen. Bilaketa horretan jarrai daitezkeen bide ezberdinak seinalatzen ditu, eskuskribu, argitaratutako Hburu, toponimia gidaritzat hartuz eta oraintsu agertutako egunkarietako eskelaz ere baliatuz, gaur eguneko *Olivares izaxexa* etorri arte izen horren itxura galtzearen bilakaera azalduz. Eta inork uste ez zuena aurkitzen du: deitura hori euskal izen jatorra dela, baina itxura galdurik; *oillo-berezi*, *Ollibares*, *Ollibes*, *Olli-Ulli*, *bares-baras*, *baratz*, etab. Hona ikerketan ematend dituen urratsen adibide argiak...

A. Lino Akesolo euskal linguistika eta dialektologian jakintsu handia izan da. Linguistikako irakasle eta horretan ari direnak Linok, linguistika arloan erabili ohi diren metodo eta baliabide zientifikoak, gaur egun unibertsitatean hain erizpide onez ikasten direnak, ez erabiltzeaz harriturik izango dira, agian... Baina linguistikan 'adituak' diren batzuri gerta dakieke metodo eta baliabideen azalean gelditzea, barneko mamira jo gabe; hau da, gaineko aide hutsaletan gelditzea... Linoren jakintza sakona zen... Utzi dituen koadernu, paper, egunkari eta aldizkarietatik ebakitako zatiak dira horren lekuko. Eta euskal literatura eta euskalkietan jakintsurik handienetakotzat jotzen dute adituek; nik neuk horretan guztiz aparta eta berezia zela esango nuke..

III. Mazlanak

Haren bizitzaren azkenaldiaz hasiko naiz: beren azken idazlana burutu eta hiru egunetara hil zen; oso azkar hil zen. 80 urte izan arren, idazle-lanetan hoberenean zegoela esan zitekeen... burua eta oroimena argi-argi, zahartzaro emankorra zuen; *Karmel* aldizkariaren azken alerako bi idazlan eskatu nizkion, beste bi hurrengo alerako, 1991.eko 4. honetarako utziz; bat, behintzat,

Estibalizko Agustin Apaolaza beneditarra buruz idazteko asmoa zuen; argitaratu dituen azken liburuak direla eta idazlantxo bat ongi merezi zuela adierazi zidan... Ni neu ere Fr. Bartolomeren lan osoen argitarapen serio eta ziur bat harekin eta beste norbaitekin elkarlanean laster hastekotan nintzen...-Fruiturik hoberenak ematen eta ametsez beterik zela, isildu zitzaigun betiko jakintsua...

Lino Akesolok, jakintzaz eta gaitasunez idatz zezakeena baino askoz gutxiago idatzi zuen... Idatzi zuenik gehiena aldizkarietako idazlan eta eman zituen hitzaldien osatzen dute.

Hala ere ondare aberatsa utzi digu. Zehatzago jakin nahi izanez gero, ikus L. Arostegi eta J. Urkizak haren *Idazlan guztiak* liburuari egindako hitzaurrea (1989).

1) «Diccionario... de las Autoridades de la lengua vasca...» (9 Hbiiruki. 1976-1989)

A. Lino Akesoloren hiztegi handia da, Manu Sotak utzitako fitxak oinarritzat harturik, hark burutua. Liburuaren izenburuan agertzen diren gainerako izen guztiak bi hauen maila berean ezartzea ez litzateke ez zuzena eta ez egia izango... Argitaratze lanetan Luis Ortégaren laguntza baliotsua izan zuen... Hiztegiaren 9 liburukiak osatzen lan eskergaitza egin arren, Lino gizon argia izanik, hiztegia hobetu daitekeela eta hobetu beharko zela apalki aitortzeko ez zuen engararik izan. Luis Arostegik, Akesolo berarengandik adierazpen hau jasorik, zera idazten du: «Baina irurogei urte inguru danetariko idazkiak arakatzen ibilli dan gizon onek oindino erriaren iztegiaren ikerketa zeatza osotu bear dala deritxo» (*Idazlan guztiak*, XXVIII orr.). Baina hau ez zuen esan, askotan ohi denez, apaltasun faltsuz, bene-benetan eta sentitzen zuenez baizik. Esandako guztia frogatzeko eta haren idatzitako milaka ohar eta zuzenketa ditugu. Hona oharren bat duten hiztegiko orrialdeak:

1. *Tomoa*: 8,10,15,17, 27, 28,35, 43, 53,63, 64,68, 69,70,71, 75, 77, 81, 83, 92, 96, 97, 110, 114, 115, 117, 119, 129, 132, 137,

139, 140, 143, 145, 146, 147, 148, 149, 153, 157, 166, 168, 177, 178, 181, 186, 187, 189, 193, 194, 199, 203, 204, 205, 208, 209, 210, 212, 213, 214, 218, 219, 220, 222, 224, 225, 226, 227, 228, 229, 233, 235, 242, 248, 257, 258, 260, 261, 262, 271, 275, 276, 278, 282, 284, 285, 288, 289, 290, 291, 296, 301, 304, 305, 306, 309, 315, 319, 324, 332, 335, 339, 344, 345, 346, 345, 357, 358, 363, 368, 370, 371, 374, 376, 382, 385, 387, 388, 389, 395, 403, 404, 405, 406, 411, 416, 417, 419, 420, 425.

//. Tomoa: 435, 440, 443, 446, 448, 452, 453, 454, 457, 458, 459, 461, 462, 463, 466, 467, 469, 471, 479, 480, 481, 486, 487, 488, 490, 492, 498, 502, 503, 507, 511, 512, 513, 515, 518, 519, 520, 523, 525, 527, 528, 531, 533, 534, 538, 539, 542, 543, 544, 558, 559, 571, 573, 577, 578, 582, 584, 585, 587, 588, 590, 594, 596, 603, 607, 608, 640, 642, 644, 647, 653, 654, 655, 659, 662, 668, 669, 673, 674, 675, 677, 678, 679, 685, 687, 693, 696, 697, 701, 702, 703, 704, 705, 706, 709, 714, 715, 716, 717, 718, 719, 720, 721, 722, 724, 726, 731, 732, 735, 738, 739, 740, 741, 743, 744, 745, 748, 750, 753, 755, 758, 762, 763, 767, 768, 775, 780, 782, 785, 789, 790, 792, 794, 795, 796, 797, 800, 801, 802, 803, 804, 805, 806, 807, 811, 812, 814, 817, 818, 820, 822, 823, 824, 825, 832, 835, 836, 839, 841, 843, 844, 846, 850, 851, 853, 859, 864, 865, 867, 868, 871, 872, 873, 878, 880, 882, 883, 885, 886, 887, 890, 892, 893, 894, 895, 896, 899, 902, 903, 904, 907, 909, 912, 914, 926, 927, 928, 929, 931, 932, 935,

///. Tomoa.- 938, 940, 941, 943, 946, 951, 952, 956, 962, 964, 969, 970, 974, 979, 982, 987, 991, 996, 1.000, 1.001, 1.009, 1.012, 1.017, 1.022, 1.027, 1.028, 1.034, 1.046, 1.050, 1.052, 1.053, 1.054, 1.056, 1.058, 1.059, 1.061, 1.065, 1.071, 1.075, 1.077, 1.081, 1.094, 1.100, >1.102, 1.102, 1.103, 1.104, 1.106, 1.109, 1.110, 1.112, 1.119, 1.120, 1.123, 1.124, 1.127, 1.132, 1.135, 1.136, 1.138, 1.139, 1.140, 1.142, 1.144, 1.148, 1.151, 1.154, 1.155, 1.161, 1.166, 1.167, 1.174, 1.178, 1.179, 1.182, 1.183, 1.187, 1.190, 1.191, 1.200, 1.204, 1.206, 1.208, 1.209, 1.210, 1.211, 1.212, 1.214, 1.215, 1.216, 1.217, 1.218, 1.221, 1.225, 1.226, 1.227, 1.228, 1.229, 1.230, 1.231, 1.235, 1.236,

1.238,1.242,1.246,1.247,1.248,1.253,1.254,1.260,1.261,1.269,
1.270,1.271,1.272,1.275,1.276,1.278,1.283,1.285,1.286,1.287,
1.288,1.293,1.294,1.295,1.300,1.303,1.307,1.308,1.314,1.316,
1.319,1.323,1.332,1.335,1.341,1.348,1.361,1.362,1.363,1.365,
1.366,1.367,1.369,1.370,1.372,1.373,1.374,1.375,1.376,1.378,
1.379,1.382,1.385,1.386,1.387,1.388,1.390,1.394,1.396,1.399,
1.400,1.408,1.409,1.413,1.415,1.419,1.422,1.423,1.424,1.425,
1.428, 1.439.

IV Tomoa: 1.443,1.44,1.445,1.446,1.447,1.449,1.453,1.454,
1.457,1.460,1.464,1.466,1.467,1.471,1.472,1.475,1.476,1.477,
1.478,1.482,1.485,1.487,1.488,1.489,1.492,1.496,1.498,1.499,
1.501,1.502,1.505,1.509,1.519,1.521,1.523,1.529,1.531,1.532,
1.535,1.537,1.538,1.539,1.540,1.541,1.542,1.545,1.548,1.551,
1.556,1.557,1.558,1.560,1.561,1.568,1.571,1.573,1.576,1.578,
1.580,1.582,1.583,1.584,1.585,1.586,1.587,1.589,1.591,1.592,
1.593,1.594,1.595,1.596,1.598,1.600,1.603,1.605,1.606,1.609,
1.612,1.614,1.617,1.619,1.628,1.631,1.632,1.641,1.644,1.645,
1.647,1.652,1.653,1.658,1.659,1.662,1.667,1.670,1.671,1.674,
1.675,1.678,1.681,1.685,1.687,1.692,1.693,1.694,1.695,1.699,
1.701,1.702,1.714,1.715,1.716,1.722,1.723,1.727,1.728,1.732,
1.733,1.735,1.743,1.744,1.748,1.750,1.753,1.754,1.756,1.757,
1.759,1.760,1.766,1.768,1.769,1.770,1.772,1.778,1.782,1.786,
1.791,1.792,1.796,1.797,1.799,1.804,1.805,1.808,1.810,1.812,
1.813,1.817,1.823,1.824,1.825,1.826,1.828,1.830,1.831,1.832,
1.835,1.838,1.839,1.841,1.842,1.844,1.847,1.850,1.851,1.852,
1.853,1.855,1.856,1.860,1.870,1.871,1.872,1.876,1.880,1.881,
1.883,1.885,1.886,1.889,1.892,1.893,1.896,1.900,1.904,1.905,
1.907,1.908, 1.910,1.911,1.912.

V. Tomoa.-1.963, 2.007, 2.110,2.129,2.135,2.138, 2.161, 2.167,
2.170,2.175, 2.187, 2.199, 2.207, 2.234, 2.240,2.244, 2.253, 2.260,
2.304, 2.343, 2.375, 2.389-¹

VI. Tomoa: 2.419, 2.455, 2.472, 2.519, 2.520, 2.532, 2.535,
2.543, 2.577, 2.582, 2.602, 2.609, 2.637, 2.642, 2.680, 2.682, 2.686,
2.711, 2.712, 2.715, 2.716, 2.719, 2.725, 2.728, 2.737, 2.749, 2.752,

2.753, 2.759, 2.767, 2.772, 2.781, 2.809, 2.818, 2.867, 2.868.

VII. *Tomoa*: 2.870, 2.896, 2.902, 2.964, 2.988, 3-017, 3-032, 3.036, 3-038, 3-039, 3-067, 3.083, 3.109, 3-116, 3-133, 3-177, 3.178, 3.183, 3-184, 3-190, 3-208, 3.209, 3.217, 2.385, 3-291, 3-294.

VIII. *Tomoa*: 3-305, 3-309, 3-316, 3344, 3.358, 3.359, 3.375, 3-390, 3.400, 3.401, 3.403, 3-405, 3.416, 3.417, 3.421, 3.428, 3-441, 3-447, 3-450, 3.460, 3.497, 3-550, 3-590, 3-593, 3-603, 3.615, 3.616, 3.617, 3-618, 3-619, 3.022, 3.670.

IX. *Tomoa*: 3-690, 3-778, 3-812, 3-815, 3-827, 3.825, 3.871, 3.903, 3-910, 3-922, 3.930, 3.939, 3.952, 3-992, 4.090.

Behin, Fr. Bartolomeren «Icasiquizunao liburua aurrean zuela, liburu horretan bere hiztegia eta gainerako hiztegieta, ezta «Oroitariko Euskal Hiztegia- agertu gabeko hitz bat zetorrela esan zidan, haren esannahia azalduz. Nik, *Karmel* aldizkariaren ale honetarako (1991-4) idazlantxo bat horretaz egitea eskatu nion, baina hil zen eta... Bilaketan, hobetzen eta osatzen ari zen beti...

2) «Ida2lan guztiak»

1989.ean, haren laguntzaz, Lino Akesoloren idazlan guztiak argitaratu nituen bi liburukitan (1602 orr.); 1925. urtean 14 urte zituela idatzi eta 1927.ean argitaratua zelako lotsa pixka bat ematen zion lehengotik hasi eta 1988.ean idatzitako azken idazlanera arte; hilabete batzu barru hirugarren liburukia argitaratuko dut, azken hiru urteetan (1989-1991) idatzitako idazlanekin (20 edo dira). Guztitara 320 idazlanetik gora. Honela sailkatu nituen gairik gai:

A. Euskera - Literatura - Kritika

- Euskera eta gramatikaren inguruan
- Euskal idazleak
- Euskal literaturaren inguruan

B. Euskera eta biblia

- C. Euskal testodun idazlanak
- D. Kondaira eta biografi artikulu eta oarrak
- E. Liburuen barri-emoteak.

3) Ezkutuan edo taldean egindako lanak

A. Linok hainbeste pertsonaren estimua izan badu, ordainik jaso gabe, eskainitako laguntza handiagatik izan da batez ere; laiko, erlijioso, apaiz, haur, gazte eta adinelco, ezjakin eta hainbat gaitan berezituak zirenek... Linorengana jotzen zuten eta hark, pazientziaz eta gogo onez laguntzen zien, lanak idatziz, gero haren izenik inon agertu ez arren; ahozko kontsultak zenbatu ezinak ziren.

Isileko taldetan eta eskainitako laguntza horien artean, honako hauek aipa genitzake:

- Batez ere liturgiako bilera eta argitaratutako eliz liburuetan izan zuen eskuhartzea. Haren laguntzaren lekuko ugari dira. Gaur egun ere lan horietako paper ugari gelditu dira. Donostia eta Bilboko apezpikuen agirietatik ere hainbat itzuli zituen. Honetaz haren lankide, izan den baten lekukotasuna ezarriko dut hitzez hitz: «Zenbait ez ete deutso Linok artikulu baten barri emon, idazlan apal bat zuzendu, ikerketa bat egiteko bideak zabaldu, itzulpen bat egin... Gogoan dot, esaterako, urte askotan euskeratu zituala gure Mixino-idazkaritzak ataraten zituan paper guztiak, Bilboko parrokia batek asteroko orritxuan argitaratzen eban euskerazko artikulua. Eta orren antzeko beste asko. Ez deutsoe olango lanak egilleari izen andirik, ez dirurik, emoten; baina laguntza apal jakituna olako lan apaletan sartuta ikustea beti da arrigarri; izan bedi txalogarri be! Niri neuri be ez deust gitxi lagundu A. Linok idazleen lorategi edo antologiak egiterakoan: idazleen barri emon, zatiak aukeratu, argibide aberatsak eskeini...» (K. ETXENAGUSIA, *Aita Linoren lan ezkutua*, Euskerazaintza 1989, 7. zenb., 47).

- *Eguneroko Meza, esku liburua*, Bilbo 1963 Oaime kerexeta eta Aita Onaindiaren izenean argitaratua).

- *Kosmos* eta II, Salamanka (Anaya) 1975.
- *Eusko Lurra* (Inigo Agirre), Donostia 1976.
- Euskaltzaindiaren *Euskal Gramatika, Lehen Urratsak*. I, Iruña 1984.
- *Euskal Gramatika, Lehen Urratsak*- II, Bilbo 1987.
- *Eraskina*, Bilbao 1987.

Eta beste itzulpen asko...

4) Itzultzaile

Egin zuen itzultzaile-lana ikaragarria izan da, batzutan ezkutuan edo taldean burutua eta beste batzutan bere izen eta guzti. Gaztelaniara eta euskarara egin ditu itzulpenak.

a. *Gaztelaniara*

Milaka dira gaztelaniara itzultako orrialdeak: bost hizkuntza ezberdinetako liburu eta idazlanak. Latinezko testuak itzuli zituen gaztelaniara (*Misproprias de la Orden Carmelitana*, Iruña 1944, 90 orr.), Frantsesetik (*La Iglesia elpeador*, Donostia 1954, 278 orr.), Ingelesetik (elaberri baten itzulpenean esku hartu zuen: Monica BALDWIN, *yo salte la tapia*, Donostia 1957); euskaratik Bernat Dechepareren olerkiak (1966.etik 1968.era bitartean argitaratuak); eta alemanieratik egin zituen batez ere itzulpenik gehienak (Fritz TILMANN, *El maestro llama*, Donostia 1956, 486 orr.; Walter NIGG, *El secreto de los monjes*, Donostia 1956, 490 orr.; Juan SCHUCK - Guillermo NEUSS, *Historia de la Iglesia de Cristo*, Donostia, 734 orr.; Edith STEIN, *La ciencia de la cruz. Estudio sobre S. Juan de la Cruz*, Donostia 1958, 413 orr.; Burgos² 1989; Fritz TILMANN, *Elementos de la moral catolica*, Donostia 1959, 225 orr.; Erich PRZYWARA, *Criterios catolicos*, Donostia 1962, 189 orr.).

b. *Euskarara*

Euskarara egindako itzulpenak ere kontaezinak dira. Prosaz eta bertsoz egindakoak bereiziz, aipamen labur bat egingo dut soilik.

aa. *Prosaz*

Eliz liburu ofizialen itzulpenak eta Bilbo eta Donostiako apezpikuen agirienak lehen ere aipatu ditugu. Aipagarria da Aita Santuaren agiria ere, «*Aita Santuaren Karta*» izenburuz zatika *Zeruko Argian* argitaratuzena (431,432,433,434 aleetan). Berriror ere K. Etxenagusiarren hitzak aipatuko ditut, L. Akesolok esku hartzen zuen liturgi bilera eta liturgi itzulpenetan lankide eta lekuko aparta bait da: «Bizkaiko talde orrek euskeratu eban leenengo zatia zera izan zan: 'Mezaren Egunerokoa' (ez oraingoa, orduan erabiltzen zana baino). Pozarren artu eban erriak ori, eta millaka ta millaka zabaldu ziran liburutxuak gure eleizetan, euskaldunon biotz-pozga«rri»... «Gure Lino an izaten zan batzarrotan, berba gitxikoa baina zorrotza (lotsa andia eutsoen batzarkideak Linoren eretxiari), ontzat emoten zan itzulpena bere paperean jarten» (K. ETXENAGUSIA, *Aita Linoren Ian ezkutuak*, Euskerazaintza 1989, 7. zenb., 48).

Bere bizitzan zehar hainbat itzulpen egin zien pertsona partikularrei.

M. CERVANTES, *Agure kezkatia*. (1930), esk.

Gurutzeko Jon deunaren esakun mamintsuak, Karmengo Argia 3 (1933) 209, 234, 313, 329-

Donekuntza-bidea, Karmengo Argia 3 (1933) 345-347, 370-372; 4 (1934) 12-14, 59-61, 118-120, 148-150, 169-171, 348-349; 5 (1935) 31-32, 213-215, 302-304; 6 (1936) 42-44.

S. TERESA, *On-bidea (Camino de perfeccion)*, Bilbo 1963, 279 orr.; S. Onaindiarekin batera egindako itzulpena.

IRATZEDER - LERCHUNDI, *Salmoak*, Bilbo 1964, 262 orr.; A. Linok bizkaieraz jarri eta egokitu zuen.

1984 Lean Saski-Naski aldizkariak L. Akesolok itzulitako sei idazlan argitaratu zituen, eta beste bat 1984.ean.

Domingo FERNANDEZ MENDIOLA, *Aita Aureliano karmeldarra (1887-1963)*. *Indian 51 urtez apaiz berrien moldatzaille*. Gasteiz (1983), 59 orr.



Manuel FUENTES, *Jaungoikoak Beretzat Gura Nau. Domingo Iturrate Zorionduna. Irukoiztarra*, Bilbo 1983, 84 orr.

Hugo Makibi ENOMIYA-LASALLE, *Sortaldeko gogoeta-eskolak eta Loiolako Inaziorena eta Joan Kurutzekoarena*, Karmel 1990-3/4, 265-274. (Alemanetik itzulia: Lino Akesolo).

Bizkaiko Aurrezki Kutxak argitaratu zuen euskal dantzei buruzko itzulpena, baina gaztelaniazko testua agertu zen soilik.

Abel-lur aldizkariak Linok itzultako idazlan batzu argitaratu zituen.

Laster agertzekotan da gaztelaniaren idazle klasikoa den Joan Gurutzekoaren testu hautatuak jasotzen dituen liburu bat; eta A. Linok hainbat testu ditu itzuliak, batez ere *KarmelMendira Igoera* (Subida del Monte Carmelo) eta *Gau Iluna* (Noche Oscura).

Orain dela hainbat urte inprimatzera eramán zen A. Manarikuak idatzi eta Lino Akesolok euskaratutako *Historia de la Virgen de Begona*, baina hainbat urte igaro ondoren, oraindik ez da argitaratu.

bb. Bertsoz

Linok gaitasun aparta erakutsi zuen bertsoak euskaratzean. Esaterako, Joan Gurutzekoaren «Cantico Espiritual» delako poema bikainaren euskarazko lau itzulpenen artean, Orixe, Gastelu, S. Onaindia eta Linok egindako itzulpenen artean, Patxi Altunaren eritziz Linorena omen da hoberena: «Oraintsu izan nuen eskea Aita Linok eta beste hiru euskal idazlek, Orixe barne, nork bere aldetik egin zituzten San Juan de la Cruz edo Juan Gurutzekoaren 'Cantico EspirituaP. izeneko olerki gorenaren eta gailenaren itzulpenei buruz artíkulu bat idazteko. Han ez nuen esaten baina hemen agertuko dut: Nere ustez onena Aita Linorena. Euskara inork gutxik bezala menderatzen zuen. Bertsoak euskaratzen parerik ez zuen» {*Egunkaria*, 243. zenb., 23. orr., 1991-LX-18).

Latinezko olerki eta liturgi goratzarreak ere euskaratu izan zituen: *Salve Mater* = *Agur, Ama* (1941.ean argitaratua), *Aserre-egun* (1951), *Enau ni, Jauna* (1951?, 1954), *Nun da maitasuna?* (1972), *Pasko-kanta* (1972), *Espiritu Santua* (1972), *Agur, Jainkoaren Ama* (1977), *Maria, gure oiua* (1977), *Illen otoitzerako* (1978), etab.

Gaztelaniatik ere itzuli izan du: *Karmengo Amari Abestia* (1951), Avilako Teresaren *Vivo sin vivir en mí* = *Zeruan det nik bizia* (1952), *Arin, artzaiak!* (1953); Alfredo Gomez Jaime-ren olerki bat edo beste ere euskaratu izan zuen (1967), baita beste batzurenak ere, esaterako, Jorge Isaac (1967), L.C. Lopez (1967); Kolonbiako olerkari batzuren lanak itzuli zituen (1968), baita Unamunorenak ere (1970)...; eta batez ere Joan Gurutzekoaren olerkirik gorenak argitaratu zituen 1990.etik 1991-era bitartean *Karmel* aldizkarian (*Cantico espiritual*, Karmel 1990-3/4, 461-473; *Aberik ez ta aberik bai*, Karmel 1990-3/4, 508; *Edozein*

ederren jarrai, Karmel 1990-3/4, 509-511; *Gabonetakoa*, Karmel 1990-3/4, 511; *Oinbidea labur*, Karmel 1990-3/4, 508; *Edozein ederren jarrai*, Karmel 1990-3/4, 509-511; *Gabonetakoa*, Karmel 1990-3/4, 511; *Onbidea labur*, Karmel 1990-3/4, 511; *Maitasungar bizia*, Karmel 1991-1, 111; *Artzaitxo maitemindua*, Karmel 1991-1, 112; *Gau illunean*, Karmel 1991-2, 107; *Maitearen eizan*, Karmel 1991-3, 112)...; Joan Gurutzekoaren olerki hauek eta Lino Akesolok itzulitako beste batzu Joan Gurutzekoaren lan hautatuak ekarriko dituen liburuan argitaratuko dira aurki.

5) idazkera

L. Akesolok beste askori falta zaizkien dohainik zituen idazteko. Prosaz idazten duenean, bai ipuin, bai zientzi, hizkuntza nahiz histori gaia, euskara argi eta ulerterrazez egin ohi zuen; euskal senez idazten zuen, joskera onez...

Aitorpen bera egin zuen E. Erkiaga idazleak ere Bizkaiko Diputazioak A. Linori omenaldia egin zionean: «Linoren prosa argia da, ulerterreza, jatorra, zalantzarik bakoa, oztoporik bage, irradan joan dana» (*Karmel* 1989-2, 9).

Jesus Gastanagak Linori buruz Orixek zuen eritzia gogora erazten digu: «Bizkaieraz idazlerik onena» dela (*Diario de Navarra*, 1991-LX-21, 46. orr.).

Haren itzulpenen argitasuna adierazten duen beste lekuko bat ere badugu eta ez edonor: J. M. Setien, Donostiako apezpikua. Behin, Donostiako apezpikua Begonako Gogarte-etxean zela, berak gaztelaniaz egindako artzain-gutun bat Lino Akesolok euskaratu zuela adierazi zion apaiz-talde bati, nola euskaratu gainera! Setienen ustez, berak egindako gaztelaniazko originala baino argiago eta hobeki.

6) Eskeskribu ugari

Hiltzerakoan eskuskribu ugari utzi dizkigu L. Akesolok, pakete, kutxa, gutunazal, liburu eta abarretan. Idazlan eta liburu gehiago argitaratzeko adina materiale zituen..., baina hura ez zen horretara

emana...; zirikatu beharra izaten zuen, berarekin egitasmo bat eginez gero, amore ematen zuen... Honela, azken 8 urteotan 47 idazlan eragin nizkion *Karmel* aldizkarirako; eta hil zenean, Fr. Bartolomeren lan osoen argitarapen handi bati ekitekotan ginen.

Hainbat agiri eta paper utzi dizkigu nahasiak, baina ongi gordeak.

a. *Bere dokumentu pertsonalak eta beste batzurenak*

Toki ezberdinak arakatuz, A. Linoren dokumentu pertsonalen karpeta bat biltzea lortu dugu: haren jaiotzari buruzkoak, gerratekoak (gudarien kaperautza, gartzela-epaia, gartzelako bizitza, irteteko baimenak, Lauzirika apezpikuari egindako gutuna etab.), Probintzialaren nahiz apezpikuaren agiri batzu, telegramak, medikuen diagnostikoak, etab.

Haren paperen artean daude A. Rafaelen (Sotero Urionaguena-ren) agiriak, bereziki gerrate zibilaren kontaketa dakarten koadernuak.

Berari igorritako gutun ugari ere gorde izan ditu, baina ez guztiak.

A. Hipolitoren (Larrakoetxearen) lanak ere gorderik zituen... baita beste idazle batzuren literaturazko lanak ere.

b. *Eskuz idatzitako koadernu eta paper solteak*

Lehen ere esana dugu L. Akesolo irakurle porrokatua zela eta, beraz, jakintzaren gordairu agortezina... Honetaz jabetzeko aski da eskuz idatzirik utzi dituen koadernu piloari begiradatxo bat egitea. Bere bizitzan zehar irakurtzen zuenaren ideiarik nagusienak, oharrak etab. idatziz joan zen, euskal literatura klasikoari dagozkionak bereziki. Honela 175 koadernu handi eta 155 txiki-txiki bete zituen; hauetan euskal idazle klasikoei buruzko oharrak eta interesgarri zeritzan edozeri buruzkoak idazten zituen.

Gainera milaka paper eta papertxo utzi dizkigu, ia guztia zikin-paperak.

c. *Eskuskribudun liburu eta egunkari-zatiak*

Haren gelan eskuskribu, ohar eta idazkiak dituzten hainbat liburu aurkitu dira; esaterako, aipagarriak dira, besteak beste, bederatzi liburukitako bere Hiztegi handian agertzen direnak, lehenago ere adierazi dugunez. Baina ez zuen hori egiten bere gelan zituen liburuetan soilik, Karmeloko euskal liburutegiko liburu askotan barreiatu geratu dira hark, eskuarki lapitzez, zerbait gehitzeko, zuzentzeko, osatzeko etab. idatzi ohi zituen ohartxoak.

Beste gauza bitxietariko bat hark bere bizitzan zehar bildu eta gorde zituen egunkari-zatitxoei dagokiena da; horrela dozena bat koadernu lodi eta karpeta utzi dizkigu egunkari-zati horiekin. Pusketa horietan denetarik dago, gehien bat kultura-gai eta euskal literaturari dagozkienak badira ere...

Idazlan eta antzinako euskal liburuen fotokopia mordo handia ere han da.



Koadernu, paper, egunkari-zati eta fotokopien artean euskal bertso eta olerkiak txitean pitean aurkitzen dira.

IV. Haren bifoliografia osatuz

Karmel aldizkarian (1989-1, 26-45) eta A. Lino Akesoloren lanen sarreran *Qdazlan guztiak*, XXXVII-LIX. orr.) haren idazlanen albait eta bibliografiarik osoena egin nuen 1988.era arte. Oraingoan, 1989.etik 1991-erakoak erantsiz osatzen ahaleginduko nahiz.

1989

Karmeldarrak Irunan. Orain Lareun Urte, Karmel 1989-1,56-63.
Orain eun urte Toledoko Illgarren Kotzilioa (589) euskeraz, Karmel 1989-2,30-36.
Bilboko iru agurlekuak, Karmel 1989-2,37-41.
Loiolako santua bidez bide eta euskaldun bat, Karmel 1989-3,87-91.
Latsibi argitara barriaz zeozertxo, Karmel 1989-3,92-99.
Santu eta euskaldun: M. Garikoits donea, Karmel 1989-4,71-81.
-ko atzizkiaren erabillera bi, Euskerazaintza (1989,9. zenb.) 1-31990.

1990

Santiago bideko euskal-kantak, Karmel 1990-1,52-65.
Etxeberri Ziburukoaren bertso bi argitzen, Karmel 1990-1,70-76.
Neska Donibandar bat euskal-olerkari, Karmel 1990-2, 5-11.
Zerda Barrutiaren «aleizako»? , Karmel 1990-2,91-95.
HUGO MAKIBI ENOMIYA-LASSALLE, *Sortaldeko gogoeta-eskolak eta Loiolako Inaziorena eta Joan Kurutzekoarena*, Karmel 1990-3/4, 265-274. (Alemanetik itzulia: Lino Akesolo).
Karmeldarrak Euskalerrian gizaldiz gizaldi, Karmel 1990-3/4,313-332.
Inazio deuna eta euskal kultura, Karmel 1990-3/4,333-350.
Joan Kurutzekoa euskal literaturan, Karmel 1990-3/4,431-437.
Joan GURUTZEKOA, *Cdntico espiritual*, Karmel 1990-3/4,508 (Olerkia, euskeratzaile: Lino Akesolo).
» » *Aberik ez ta aberik bai*, Karmel 1990-3/4, 508 (Olerkia, euskeratzaile: Lino Akesolo).
» » *Edozein ederren jarrai*, Karmel 1990-3/4, 509-511 (Olerkia, euskeratzaile: Lino Akesolo).

» » *Gabo?zetakoa*, Karmel 1990-3/4,511 (Olerkia, euskeratzaile: Lino Akesolo.
 » » *Onbidea labur*, Karmel 1990-3/4,511 (Olerkia, euskeratzaile: Lino Akesolo).
Kristo'ren jaiotza eta «jaiotzak», Saski-naski (1990,48. zenb.) 1-10.

1991

Sabin Muniategi olerkaria (1912-1990), Karmel 1991-1, 23-35.
 JOAN GURUTZEOA , *Maitasun-gar bizia (Llama de amor viva)*, Karmel 1991-1,111 (Olerkia, euskeratzaile: Lino Akesolo).
 » » *Artzaitxo maitemindua (Un pastorcico)*, Karmel 1991-1, 112.
 (Olerkia, euskeratzaile: Lino Akesolo).
Fededunen arbasoa, euskal antzerki eta opera, Karmel 1991-2,3-26.
 JOAN GURUTZEOA , *Gau illunean*, Karmel 1991-2, 107 (Olerkia, euskeratzaile: Lino Akesolo).
Etimologi bitta: Zeanuriko Undurraga eta Olibares, Karmel 1991-3, 5-11.
Siberian zigor-lekueetatik santutasunera: Errapel Kalinowski deuna, poloniarra, Karmel 1991-3,43-54.

Azken hitza

Lino Akesoloren bizitza eta lanari gainbegirada hau egitean, euskal kulturari, bereziki euskal literatura eta linguistikan, hark zuen nortasun handiaz liluraturik gelditu gara; beraz, Lino Akesoloren bizitza eta lanaz ikerlanserio eta zabala egin beharraz jabefu gara.

Horregatik nire deia literatura eta histori irakasle eta ikasleei dokterego-tesia egitekotan direnei, hemen proposatzen den lanari hel diezaioten. Lino Akesoloren bizitzan bait dira laburbildurik Euskal Herriaren historia sozial eta kulturala eta bereziki euskal literaturaren historia eta euskara batua lortzeko lehian gai horren inguruan azken urteotan izan diren atzera-aurrera eta eztabaiden


ikuspegi interesgarria; Lino Akesoloren bitartez azter daiteke Euskaltzaindiaren historia, hango pertsonaiena etab.

Akesoloren bizitza eta lanean Euskal Herriaren bake garaiko nahiz gerrateko protagonista eta lekuko sozial eta kultural aparta nabari dugu. Horregatik, jakintsu honen bizitzak goi-mailako historia idatzia merezi izango luke. Euskal herriko Unibertsitateko irakasle eta doktoregaiei egiten diegun deia da.

Julen Urkiza

rr

^



ESTUDIO
FOTOGRAFICO

ARteimtititi

*Ezkontzak - Argazkigaiak saldu - Argazki-aldaketak
Lauki-ertz ipinketa - VIDEO - Plastifikatzeak
Fotokopiak (Txikitzeak)*



San Miguel kalean, 14
Urrut.: 673 0509
48340 Amorebieta

Tranabarren, 13 Bloque 1-4
Urrut.: 681 1009
48220 Matieraa (Abadiano)

JUAN MANUEL SASUATEGI

AVISA: 444 3500 - Abonado 868

V

yj